


AZALERA HANDIETAKO ETA ELIKADURA KATE HANDIETAKO MERKATARITZA INDIZEA. 2020KO UZTAILA

Euskal AEko azalera handietako eta elikadura-kate handietako salmentak % 2,2 gehitu dira 2020ko uztailean

2020ko lehen sei hilekoan metatutako salmentak % 0,8 hazi dira

Eustaten datuen arabera, eta lan-egutegiko termino homogeneoetan, Euskal AEko merkataritza-azalera handietako eta elikadura-kateetako salmentek urte arteko % 2,2ko igoera izan dute 2020ko uztailean, prezio finkoetan. 2020ko ekaineko datuekin alderatuta, urtaroen eraginik gabe, salmentak % 2,1 jaitsi dira.

Euskal AEko azalera handi eta elikadura kate handietako merkataritzaren indizearen urte-arteko aldakuntza-tasa. (%)



Iturria: Eustat. Merkataritza indizea azalera handietan eta elikadura kate handietan-AHEK

Elikagaiak azalera handietan eta elikadura-kateetan izan dituzten salmentek % 3,7ko urte arteko igoera izan dute; gainerako salgaiek, berriz, % 0,5eko jaitsiera izan dute aurreko urteko hil beraren aldean, egutegiaren ondorioak atera ondoren.

Ekainarekin alderatuta, eta urtaroen eragina atera ondoren, prezio finkoetako elikagaien salmentak % 0,7 jaitsi dira, eta gainerako produktuenak % 4,9.

**Euskal AEko azalera handi eta elikadura kate handietako merkataritzaren indizea.
Urte arteko eta hile arteko aldakuntza-tasa. Uztaila 2020 (p)**

	PREZIO FINKOAK		
	m / m-12	m / m-1	A (m) / A (m-12)
INDIZE OROKORRA lurralde historikoaren arabera			
Euskal AE	2,2	-2,1	0,8
Araba/Álava	1,8	-3,8	1,8
Bizkaia	1,3	-2,2	-0,4
Gipuzkoa	3,7	-1,2	2,5
INDIZE OROKORRA sektorearen arabera			
Elikagaiak	3,7	-0,7	9,9
Beste produktuak	-0,5	-4,9	-16,8
ENPLEGU INDIZEA			
Euskal AE	1,5	0,5	1,5

(p) behin-behineko datuak

m / m-12 Urte arteko aldakuntza. Egutegiaren eragina zuzendutako datuak

m / m-1 Hile arteko aldakuntza. Datu desestazonalizatuak

A(m)/A(m-12) Urtarriletik oraingo hilerako arte metatutako urte arteko aldaketa-tasa, aurreko urteko aldi beraren aldean

Iturria: Eustat. Merkataritza indizea azalera handietan eta elikadura kate handietan-AHEK

Lurralde guztietan igo dira urte arteko salmentak prezio finkoetan, egutegi-efektuak behin aterata: Araban % 1,8, Bizkaian % 1,3 eta Gipuzkoan % 3,7.

2020ko urtariletik uztaileko bitarteko metatutan, Merkataritza-azalera handietako eta elikadura-kateetako salmenten indizeak % 0,8ko igoera izan du, elikadurako salmentak % 9,9 igo direlako eta gainerako produktuenak % 16,8 jaitsi direlako.

Arabak eta Gipuzkoak % 1,8 eta % 2,5 egin dute gora, hurrenez hurren, urteko metatutan; Bizkaia, aldiz, bilakaera metatu negatiboa izan du, % 0,4ko beherakadarekin; hori guztia, prezio finkoetan eta lan-egutegiko termino homogeneoetan.

Langile-kopurua Euskal AEko azalera handietan eta elikadura-kate handietan % 1,5 gehitu da aurreko urteko hil beraren aldean eta % 0,5 igo da aurreko hilaren aldean, urtaro-ondoriorik gabe. 2020ko lehen zazpi hilabeteetako metatutan langile enplegatuen kopuruak % 1,5 egin du gora 2019ko aldi berarekin alderatuta.

COVID-19 KRISIALDIAN AHEK-I BURUZKO OHARRA

Indize ekonomiko koiuntural honetan eta beste indize ekonomiko koiuntural batzuetan kontuan hartzen diren langile enplegatuen artean, Enplegua Aldi Baterako Erregulatzeko Espediente (EABEE) duten pertsonak sartzen dira, Europar Batasuneko Estatistika Bulegoak (Eurostat) Methodology of Short Term Business Statistics eskuliburuan jasotzen duen enplegatuen definizioari jarraituz.

Egutegiaren ondorioak zuzentzeko eta serieak urtaro-ondoriorik gabe uzteko erabilitako modeloek COVID-19ak aztertutako aldagaietan duen eragina barne hartzen dute, Europar Batasuneko Estatistika Bulegoak (Eurostat) Guidance on Time Series Treatment in the context of the COVID-19 crisis ohar metodologikoan emandako gomendioei jarraituz.

Eustatek eskerrak eman nahi dizkie lagundu duten establezimendu guztiei egindako ahaleginagatik aparteko zirkunstantzia hauetan. Haiei esker, uztaileko indizea laginaren **% 88,10ko estaldurarekin** kalkulatu da (laginaren informazioa abuztuan zehar jaso da).

Informazio gehiago:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia kalea, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Prentsa Zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tel: 945 01 75 62